LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Laugarren Hiruhilekoa 2022

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2022ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 4
Lanbiden erregistratutako langabezia 5
Afiliazioa Gizarte Segurantzan 6
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 8

Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera %2,8koa izan da laugarren hiruhilekoan, 2023 urte osorako aurreikusten den hazkundea %2,1ekoa izanik.

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2022ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Ukrainako gerrak, energiaren merkatuetako tentsioek, inflazio handiak eta, azkenik, eremu ekonomiko garatu nagusietako diru politikaren norabide aldaketak Euskadiren hazkundea moteldu dute urtean zehar. Hala ere, hiruhileko bakoitzean lortutako hazkunde tasak garrantzitsua izaten jarraitu zuen.

Aipamen berezia merezi du hiruhileko arteko bilakaerak; izan ere, azken hiruhilekoko gehikuntza tasa (%0,4) hirugarrenekoa baino hobea izan da, eta horrek baztertu egiten du atzeraldi teknikoan murgiltzeko aukera.

Urteko batez bestekoan, EAEko ekonomia %4,3 hazi zen 2022an, eta tasa hori bat dator Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenarekin. Eustatek aurreratutako datuen arabera, ekonomiaren sektore guztiak hazi ziren, baina 2021ean baino erritmo motelagoan, urte horretan BPGa %5,9 igo baitzen.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokienez, EAEko BPGa %2,1ekoa izango da 2023 urte osoari dagokionez.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza , "Koiuntura DI-DA batean 2023ko otsaila" txostena

Espainiako ekonomiari dagokionez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2022 urtean, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, %5,5ekoa izan da. 2023 urterako urtez urteko BPG-aren aurreikuspena, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, %1,2koa da. Euroguneko ekonomiari dagokionez, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2022 urtean, Eurostat-en arabera, %3,5ekoa izan da. 2023 urterako urtez urteko BPG-aren aurreikuspena, Consensus Forecast-en arabera, %0,0koa da.



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2023ko otsaila" txostena

Munduko ekonomiari dagokionez, pandemia gaindituta zegoela eta normaltasuna itzultzen ari zela uste zenean, 2022k eraso egin zuen gertakari berriekin. Errusiak Ukraina inbaditu zuen eta gatazkak aurrekaririk gabeko krisi energetikoa ekarri zuen. Gertakari horrek, era berean, berez handia zen inflazioa gorarazi zuen maila gorenetaraino, eta azkenean diru politika ultra-laxoaren aro baten amaiera behartu zuen. Eragina herrialde guztietan nabaritu zen, erosteko ahalmena murriztu baitzitzaien, eta horrekin batera kontsumoa eta inbertsioa. Hala ere, munduko ekonomiak berriro erakutsi zuen erresilientzia, eta lehen zenbatespenek BPGaren %3,1eko hazkundea jasotzen dute.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera %0,8 jaitsi da: +796 gizonezko eta -1.678 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** %0,8 jaitsi da 2022ko laugarren hiruhilekoan (-882 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 110.798 pertsonakoa izan da, urte arteko jaitsiera % 3,5ekoa izanik.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 796 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta 1.678 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 47.845 pertsonatan kokatu da eta 62.953 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-622); ondoren, 16-24 urte bitartean (-120); 35-44 urte bitartean (-95) eta 55-64 urte bitartean (-93). 45-54 urte bitartean, ostera, langabetu kopurua 48 pertsonatan igo da.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan %0,5eko igoera izan da langabetu kopuruan. Araban eta Bizkaian, ostera, %2,0 eta %1,0ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua %4,8 igo da eta bertako langabetu kopurua %1,9 jaitsi da. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 18.682 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 92.116 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duen taldea Unibertsitate ikasketak dituztenena izan da (-%5,5), jarraian Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (-%2,0) eta Batxilergo ikasketak dituztenak (-%1,1). Oinarrizko ikasketak dituzten langabetu kopurua %0,7 igo da.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (-490); (ii) Kirol, jolas eta entretenimendu jarduerak (-192); eta (iii) Egoitza establezimenduetan laguntza (-166). Langabetu kopurua igo den jardueren artean, enpleguarekin lotutako jardueren taldea nabarmentzen da (+1.218), ondoren Administrazio Publikoa eta Defentsa, Derrigorrezko Gizarte Segurantza (+98) eta eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak (+48).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 994.077 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %1,9 gehiago

EAEn 2022ko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 994.077 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %1,9 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,4 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %52a gizonezkoak dira eta %48a emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,3); jarraian Gipuzkoan (%33,3) eta Araban (%16,4). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 11.697 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; Gipuzkoan +4.363 eta Araban +2.127.

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, laugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (%17,3); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (%13,7); eta (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%11,4). 2022ko laugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Hezkuntza (+11.492); (ii) Arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (+2.341); eta (iii) Ostalaritza (+1.687). Jaitsiera handiena jasan duten jardueren artean, ondorengoak nabarmentzen dira: (i) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (-2.847); eta (ii) Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-1.655).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %0,5 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 83.223 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %8,4koa da, afiliatu autoktonoena %91,6koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %1,0 jaitsi da eta emakumezkoen afiliazioa %2,4 igo da. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa %2,7 igo da Bizkaian, Gipuzkoan ia egonkor mantendu da eta Araban %4,2 jaitsi da.

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Laugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %13,2 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 196.476koa izan da

2022ko laugarren hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 109.639koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %13,2 gutxiago. Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %10,5eko jaitsiera izan da eta gizonezkoen artean -%15,8koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %43,2k Derrigorrezko ikasketak ditu, %21,4k Batxilergo ikasketak, %18,5ek Unibertsitate ikasketak eta %16,0k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2022ko laugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %27,6ko pisuarekin; 24 urtetik beherako taldeak jarraitzen dio (%22,3). Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatuko pertsona kopuruan jaitsierarik handiena izan duen taldea 24 urtetik beherakoena izan da (-%22,7), jarraian 25-34 urte bitartekoena (-%10,6).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %80,8a bertakoak dira eta %19,2k atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gehiago). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%48,7), Europar erkidegokoak eta ez erkidegokoak (%16,6) eta Afrika iparraldekoak (%15,7).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopurua**ri dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 196.476 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1,8 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %5,2 jaitsi da sinatutako kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %26,0 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,4 puntu gutxiago) eta %74,0 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %35,6 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,3 puntu gehiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban eman da sinatutako kontratuen jaitsierarik handiena (-%10,8), jarraian Gipuzkoan (-%9,0) eta Bizkaian (-%0,3). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%50,2; 98.543); jarraian Gipuzkoa (%30,1; 59.100) eta Araba (%19,8; 38.833).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%13,4); (ii) manufaktura industria (%12,9); eta (iii) ostalaritza (%12,8). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%20,0) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%20,4).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %8,4koa izan da eta enplegu tasa %51,5ekoa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** %51,5ekoa izan da (%56,0 gizonezkoen kasuan eta %47,3 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 962.600ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 4.600 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 502.100ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gutxiago) eta 460.600ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,1 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%81,0), 396.600 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%24,8), 46.500 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da (+%2,4).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da enplegu tasarik handiena izan duena (%52,7), jarraian Araba (%51,7) eta Bizkaia (%50,6). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian %0,6ko jaitsiera erregistratu da; Araban -%0,4; eta Gipuzkoan -%0,3.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%72,9). Ondoren, Industria sektorea (%20,0), Eraikuntza sektorea (% 6,1) eta Lehen sektorea (%1,0).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %76,9k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte EAEn eta %23,1ek aldi baterako kontratuak. **Lanaldi mota**ri dagokionez, soldatapekoen %81,4k lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %18,3k lanaldi partzialekoak.

Laugarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** %8,4koa izan da (%7,8 gizonezkoen artean eta %9,1 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 88.500 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 6.100 pertsona gehiago (gizonezkoen kasuan %4,5 igo da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan +%10,2).

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%6,9); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%9,2) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%19,2). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, 16-24 urte bitarteko taldean eta 45 urte edo gehiagoko taldean %10,6 eta %4,1eko murrizketak eman dira, hurrenez hurren, langabetu kopuruari dagokionez. 25-44 urte bitartekoen taldean %28,6 hazi da langabetu kopurua.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%6,9), jarraian Araban (%9,0) eta Bizkaian (%9,2). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, Gipuzkoan %0,8 murriztu da langabetu kopurua; Bizkaian eta Araban ostera, %11,5 eta %8,3 igo da, hurrenez hurren.

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen %46,6k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, %28,0k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, %25,4k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen %73,6 bertakoak dira, atzerritarrak, beraz, %26,4.